

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
52 positibo berri	13 hildako	130 positibo berri	14 hildako
325 positibo guztira	111 ospitalizatuta	794 positibo guztira	288 ospitalizatuta
Hemanin 10 (berriak 3), Astigarragan 3 (berriak ez)			

«Badut esperantza ttiki bat, gutxiengo laguntza bat, behintzat, jasoko dugula autonomoek»

Martxoaren 14tik dago itxita Goizuetako Kale Nagusiko Irati ileapaindegia, Koronabirusa dela-eta. Hala ere, Irati Arozena Almandozek jakinarazi du prest dagoela etxetz etxeko laguntza zerbitzua emateko.

GOIZUETA KORONABIRUSA

«Aurreko larunbatean beti bezala egin nuen lan», dio Irati Arozena Almandozek. «Igande goizean izan genuen abixua, eta ez dut gehiago ireki». Hainbat eta hainbat autonomoren egoera bera bizi du Irati ileapaindegia ere. Koronabirusa dela-eta, hainbat neurri hartu behar izan ditu, guztiz itxi arte.

Desinfektatzeak, garrantzia
Aurreneko kezka zantzuak eskolak ixtean zabaldu zirela sumatu du Irati Arozenak. «Eskolak ixtearekin batera, kezka sortu zen herrian. Astearen hasieran ez zen hainbeste, baina egunak pasatu ahala, asteburu aldera, kezka haunditu egin zen, eta kaleak gero eta hutsagoak ikusten ziren».

Ileapaindegian ere nabaritzen hasi zen, eta neurriak hartu zituen. «Hartu ditudan neurriak izan dira, batez ere, ongi desinfektatzea, bai bezeroek ukitutako guztia eta baita bezeroak egon diren leku guztiak ere. Bezeroak banaka hartu, eta 10 minutuko tarte utzi dut batetik bestera, gauzak desinfektatzeko. Nire aldetik, ura eta xaboiarekin eskuak ongi garbitu eta eskuetan desinfektantea pasatuz ere ibili naiz, eta bezero bakoitzarekin guanteak aldatuz», azaldu du.



Martxoaren 14tik dauka ileapaindegia itxita, Irati Arozena goizuetarrak.

Etxetz etxe laguntzeko prest
Azkenean, ordea, itxita geratu da Irati ileapaindegia, martxoaren 14az geroztik. Hala ere, etxetz etxe laguntza emateko prest

«Asteburu aldera kezka haunditu zenean, neurriak hartu nituen; batez ere, ongi desinfektatzea, bai bezeroek ukitutako guztia, eta baita bezeroak egon ziren leku guztiak ere»

azaldu da Arozena. «Etxetz etxeko zerbitzurako, momentuz, ez dut proposamenik izan, baina nire aldetik, prest nago, bai helduei eta baita ezintasunen bat dutenei ere, laguntza emateko».

Zerbitzua jaso nahi dutenei telefonoz hots egiteko eskatu

die, 609 613 546 zenbakira.

Normalean, adin guztietako bezeroak izaten ditu; ume, gazte zein heldu, emakume nahiz gizon. Baina zerbitzua laguntza behar dutenei bideratutakoa dela azpimarratu du.

Laguntzen zain, orain
Egoerak zein ondorio ekarriko dituen, ezin jakin. Baina kezka nabaria da jende askorengan, eta baita Arozenarengan ere. «Autonomo izanda, nik uste dut galera izanen dugula». Dena den, laguntzaren bat jasotzea espero du. «Espainiako Gobernutik ez digute momentuz deus garbirik esan, baina nik badut esperantza ttiki bat, gutxiengo laguntza bat, behintzat, jasoko dugula».

Beharko du, beste hainbatek bezala. Izan ere, aitortzen du garai hau ona izaten dela normalean ilepainendegietan. «Garai hau ileapaindegirako momentu ona izaten da; udaberrian sartzeraz goazela-eta, mugimendu gehixeago hasten baita».

«Bakoitzak gure aldetik jarri behar dugu, egoera hau lehenbailehen konpontzeko»
Besterik egin ezinda, «pertsonalki kezkatuta eta aspertuta,

«Autonomo izanda, nik uste dut galera izanen dugula. Espainiako Gobernutik ez digute momentuz deus garbirik esan, baina nik badut esperantza ttiki bat, laguntza jasotzeko»

etxetik atera gabe, mundu guztia bezala» dagoela aitortu du Arozenak. Baina egoera zein den ikusita, eutsi besterik ezin dela egin dio. «Bakoitzak gure aldetik jarri behar dugu zer edo zer, egoera hau lehenbailehen konpontzeko», nabarmendu du. **K**

Beste 15 egunez luzatuko da alarma egoera

Pedro Sanchez presidenteak aditzera eman zuen atzo, apirilaren 11ra arte luzatzeko erabakia hartu dutela.

URUMEA KORONABIRUSA

Aste honen bukaerara arte dago ezarrita osasun alarma egoera, Espainiako estatu osoan; baina neurria hasierako 15 egun haue-tatik harago luzatuko du Gobernuak, egungo egoera ikusita. Hala jakinarazi zuen atzo Pedro Sanchez presidenteak: «zientziako adituen gomendioak entzun ondoren, erabaki dugu beste 15 egunez luzatzea alarma egoera, estatu osoan». Hori horrela, apirilaren 11ra arte ezarriko ditu indarrean dauden neurriak, Gobernuak. Datozen egunetan emango diote onarpena, epe berriari, diputatu kongresuaren bilkuran. Modu horretara, herritarrek ezingo dute etxetik atera beste hiru astez, COVID-19 birusaren hedapena ahalik eta gehien murrizteko asmoz, ez bada onartuta dauden arrazoietarako.

Autonomia erkidegoetako presidenteei eman zien erabakiaren berri atzo, Sanchezek berak, bideokonferentzia bitartez. Eta hala helaraziko die, alderdi politikoetako ordezkariak ere.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA



Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlaigo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

TILIN * TOLON
BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK
KONTSULTAK
☎ 943 55 56 94



Txirrila, 10 - HERNANI

Zorionak aitona!

Muxu bat zure familiaren partez

Laister egongo gara zurekin



